

## EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Zazpi dira *Uztaroren* 64. zenbakian argitaratzen ditugun artikuluak. Jorge Oteizaren *Quousque tandem...!* liburuak euskal kulturari ekarri dionetik hasi, eta “parte-hartze proiektu anbiguoaren azterketa”, “gaitasun komunikatiboa eta euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko eraginak gaztetxoek hezkuntzan”, “konbergentzia mediatikoaren aurrerapenak Goiena kooperatiban”, “emakumezko autobus-gidarien balizko gaitasun-transferentziak eta portaera berritzaileak” gaiak jorratzen dituzten artikuluetatik pasatuta, “Uruguaiako etorkinei aplikatu beharreko zuzenbidea” aztertuz amaituko dugu. Zazpiotatik seik euskal gizartea daramate zuzeneko gaitzat; zazpigarrenak, aldiz, interes handieneko gertatuz, zeharka ukitzen gaitu autonomia-erkidegoen jokabidea artean dugulako. Badute guztiek berdintasun-punturik: ikerketa zientifikoaren arauetatik eraikiz garatuak izatearena, alegia. Banan-banan helduko diegu, irakurleari aurkezpen-sintesi bat eskaintzeko asmoz.

“Jorge Oteizaren *Quousque tandem...!*: irakurketa berriak” izeneko artikulua liburuaren ikuspegi berri bat proposatzera dator. Eskultura-liburu hau ulertzeko Oteizaren Maklak izeneko eskultura-seriea kontuan hartu beharra azpimarratzen da. Eskultura misterioitsuak, iheskorak lirateke. Ezaugarri nabarmen bat daukate: osotasunezko hautematea ez dutela zilegi egiten. Zati ezberdinez osaturiko osotasun iheskor bat izanik, irakurketa ez-lineala egin beharko litzateke. Kontzeptuen bidez baino gehiago irudiekin pentsatzen baitu Oteizak. Adierazten zaigunez ezaugarri hori oso ohikoa omen da mistikoen eta poeten idatzietan. Horrela, Oteizaren baitan kronlech edo hutsa ez dira kontzeptuak, sinbolo sortzaileak baizik. Aipatu liburuko idatziak, orduan, zilegi litzateke pentsatzea espazio huts horren zentzua eta esanahia ulertzeko saiakerak direla. Frankismoan liburua argitaratzeko baimena emateko zentsoreak idatzi zuenak garbi ageri du usainik ez ziola hartu: «Obra (ez baitu moralak erasotzen, ez du salatzen joera politiko gaitzesgarriarik, ez da erakusten ere –tamalez– balio literarioaren aztarnarik batere), baimendu daiteke asaskatze pertsonal kaltegabe bezala». Hala ere, berealdiko oihartzuna izan zuen garai hartan sortzen ari ziren talde politiko abertzale eta ezkertiarren artean. Lehen unetik, eduki politiko abertzaleak dituen liburutzat hartu izan zen. Oteiza, horrela, euskal kulturaren epizentroan kokatu zen. Ondorioz mitifikatu egin da. Baina ez da ikerketa eta hausnarketarik egin. Artikuluaren egilearen galdera, bada, honako hau da: zer irakurketa edo zer ondorio atera dezakegu orain? Izan ere, testuen zati batzuk ilun eta zail suertatzen baitira eskultura kontuan hartu gabe. Oteiza arte abstraktua egia sakonak azaltzeko baliabidea zela usten zutenen artean zegoen. 1930eko hamarkadan azaldutako zenbait ideiarekin harremanetan dago, baina baita 1957ko Sao Pauloko IV Bienalean atzerritar hoberenaren saria irabazteko egindakoarekin ere. Eskulturak emaitza zehatz batzuk lortu ondoren, eskultura egiteari uko egitea erabakitzean argitaratzen da aipatu liburua. Testuan, bada, eskulturak eta idazkiak lotzen dituen hari fin bat aurki dezakegu. Oteizaren arte abstraktuak zentzu erlijiosoa du. Bere

lehen eskultura, 1929ko *Maternidad* da. Eskultura hori Erdi Aroko ikonoekin edo kultura primitiboetako deboziorako irudiekin harremanetan jar daiteke. Bere 1931, 1935 eta abarretako eskultura guztietan kutsu primitiboa nabarmen antzematen da. Euskal pizkundea zeritzonaren beharra aldarrikatzen zuen. Arteak eginkizun zehatza zuen garai bakoitzean: mitoak berritzea. 1935ean arte abstraktuaren eta errepresentazio soziala deitzen duenaren arteko berdintasun eta ezberdintasunek arduratzen dute. 1944an bere testurik landuena argitaratzen du: artearen eta mitoen arteko harremanaz, denboraren eta artelanaren arteko harremanaz, estetikaren eta sakratuaren arteko harremanaz, eta pintura muralaren arazo formalez arduratzen da. Oteizak bere lanak aurreko abangoardien segida izan behar zuela kontsideratzen zuen. 1947an, batetik, ezaugarri adierazkorra nabarmentzen zuen, eta, bestetik, aurreko artisten emaitzetan oinarritu behar zuen hizkuntza plastiko berria definitzen zuen. Bestalde, 1947ko beste artikulu batean, eskulturaren “birsortzeaz” ari dela, horren oinarriak ezabaketan eta hutsunean kokatzen zituen. 1950ean ideia hori bere eskulturaren ezaugarri formal garrantzitsua izaten hasi zen. Lehen aldiz beste artistei dizkien zorrak alde batera uzten ditu eta bere ibilbidea garbi finkatzen hasten da. Horretarako materia kentzea da lehen urratsa. 1951n eta 1952an bere arreta batez ere artelanen arazo estrukturaletara zuzentzen du. Oteizaren ustez ere arte abstraktuak edo arte berriak bete behar zuen ordurainokoan arte kristauak bete izan zuen zeregina. Horrela, 1954. urtera arte Arantzazuko proiektuan aritu zen buru belarri, bertako lanak galarazi arte, alegia. 1956-57 urteetatik aurrera, lehenik hutsunea deitu zuen ezaugarri formala orain espazio desokupatu bilakatzen da. Hiru figura geometriko, zilindroa, esfera eta kuboak desokupatzen saiatzen da. Espazio huts kontzeptu honen bitartez artearen eta erlijioaren arteko harremanak ere argitu egiten ziren. Azkenik, 1961ean, Oteizaren aurreko testuetan garatutako ideia estetiko guztiak liburu bakar batean biltzeko saiakera egin zuen. Bukatu izan balu, hau izango zen dudarik gabe Oteizak XX. mendeko arteari oparitutako zion testurik garrantzitsua. Oteizarentzat arteak dimentsio unibertsala duela garbi gelditzen da bere testu guztietan. Eta artearen dimentsio unibertsal hori pertsona zehatz bakoitzaren baitan islatzen da. Artea gizakion bizitzari zentzua eta osotasuna ematen dion jarduera dela gogoratzen digu.

“Garapen-proiektu eta -programetan parte hartzeko eredu eraldatzaileak eztabaidatzeko ldoak” artikulua, giza garapen, garapen jasangarri eta enpoderamendu edo jabekuntzaren teoriaren elementuak nabarmenduz hasten da. Baita parte-hartzearen ezaugarriak identifikatzera dator ere. Hitz bera eduki desberdinez erabiltzeak, ordea, ulergarritasuna zailtzen du. Idatzi den testuaren helburua, hain zuzen, errealitate konplexu horren barruan kokatzeko irizpideak eskaintzea litza-teke. Kontzeptuaren anbiguotasuna seinalatuz hasten bagara, arazo bat dagoelako da. Adieraz dezagun “eragitea”, “erabaki-hartzea” eta “kudeaketa”, adibidez, nahasten direla. Parte-hartze eraldatzailearen ereduak baizik ez da aintzat hartuko. Gainera, sakoneko begirada kualitatibo batetik aztertuko da. Giza garapena eta garapen jasangarriaren teoriak jarriko dira gidari. Garapenari dagokionez, prozesu gisa ulertu behar da. Parte-hartzea bera garapenerako lanabes eta helburu da aldi berean. Garapen jasangarriari dagokionez, berriz, esan dezagun egungo belaunaldiaren beharrak asetzen dituenari aplikatzen zaiola. Kezkak, batetik, eskatzen dituen eraldaketan ondorioz sortzen dira. Bestetik, pertsona

bakoitzaren aldaketa izan behar duenez, ondorioz, tokiko komunitatearen inplikazioa garrantzitsu bilakatzen da. Ez dira, beraz, hautu tekniko hutsak, baizik eta karga arauemailea duten gizabanako eta komunitateen balio-aukerak. Parte-hartzeak, horrela, justizia-elementuak ere berekin ditu. Parte-hartzea lanabes gisa ulertzen bada, teknika bat baino ez da. Baina, helburutzat hartzen bada, garapen-prozesuaren zati esentziala litzateke. Eredu eraldatzaileak azken horrekin lotzen badira ere, hala ere ez dago mespretxurik lanabes gisa darabiltenekin. Helburutzat hartzeak ere, emaileen eta hartzaileen artean harreman-aldaketa dagoela adierazten du. Parte-hartze eraldatzailea enpoderamenduaren sortzailea ere bada. Hori interpretatzeko orduan, hiru eskola lehiatzen dira. Lehena, gatazka teorikoena, botere-sistema itxi gisa ikusten dutenena. Bigarrena, adostasunaren ikusmoldeak izanik, boterea etengabe heda daitekeen ikuspegizat daukatena. Hirugarrena, nola gatazkatik hala adostasunetik boterera igarotzea dagoela diotenena. Artikuluaren autorea teoria eklektiko bat osatzen saiatzen da, aldi berean funtziona dezaketen lau botere modu identifikatuz: *gaineko boterea*; *egiteko boterea*; *elkarrren boterea*, eta *barne-boterea*, alegia. Funtsean, enpoderamendua lau botere mota horiek lortzen direneko prozesuarekin definitzen du. Parte-hartzeak anbiguotasun ideologikoa ere baduela onartzen bada, bi sendi osatzen ahal dira kontrajarritako adjektiboak erabilia: bata, espazio “gonbidapenez sortuek, gidatuek edo manipulatuak” egingo lukete; bestea, aldiz, espazio “berezkoek, autonomoek, herritarrek, eta asmatuek” egingo lukete. Hitz gutxitan esanda, beraz, parte hartzeko espazioak nork, nola, zergatik eta zertarako sortzen diren edo betetzen diren jakiteak funtsezko garrantzia du. Ez dago estrategia bakar bat. Espazio bat sortzeak eta bertan parte hartzeak identitate eta interes kolektibo berriak sortzeko balio lezake. Espazio mailak ere aipatu beharrekoak lirateke. Hortik zuzenean eratortzen den gaia da autogestioaren aldarrikapena. Talde batek beste bat enpoderatu dezakeela pentsatzen duelarik, lehenak inplizituki onartzen du bigarrenak ez duela inongo botererik. Baina, egia besterik da, hots, ahulenak ere ez direla inolako botere gabeak, kultura-elementuetan bederen aurki baitezakete botere bat. Halaber, autogestio gabe ez daiteke sor enpoderamendurik. Bestearen enpoderamendua bilatzen den heinean, bilatze-saio hori lankidetzanahiez zeharkatua egongo baita. Parte-hartzearen erabakitzeko gaitasunean dauden bost maila aipatzen dira: informazioa; kontsulta; ko-erabakia; erabakia, eta ko-kudeaketa, alegia. Garbi legoke lehen bi mailak ez direla aski eraldaketarako. Tokiko informazioa eta informazio-kudeaketa begiratu beharko genituzke. Prozesu deliberatiboei buruzko hausnarketak ere egin behar dira: interesen osaera; erabakitzeko orduan beharrezkoak diren gehiengoak; aniztasuna eta pluraltasuna; boterea, jakinduria eta hitz egiteko erraztasuna espazio guztietan... eta abar. Garapen-lankidetzako proiektu eta programetan parte hartzea hasiera-hasieratik eta aldi guztietan gertatu beharko litzateke. Prozesu iteratibo gisa ulertu beharko litzateke jendearen inplikazioa. Subjektuei dagokienez, giza talde baztertuen parte-hartze eraldatzailea premiazkoa dela onartu behar da. Zenbat eta jende gehiagok parte hartu eta zenbat eta modu parekideagoan egin, hainbat hobe. Zuzena edo zeharkakoa izan behar duen kasuz kasu eztabaidatu beharko litzateke. Parte-hartzeak huts egingo luke ekintza kolektiboa edo elkarlana zaila den testuinguruetan. Ondorioetara heltzean dio: lehenengoa parte-hartzearen anbiguotasuna onartzea dela. Eraldatzailea izan dadin ildo batzuk proposatzen dira. Eztabaida-ildo hori ez doa eredu matematikoen arabera.

“Gure gaztetxoaren gaitasun komunikatiboaren argazkia” artikulua, euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko elkarreraginaren nondik norakoak aztertzen saiatzen da. Hymes-ek asmatu zuen gaitasun komunikatiboaren kontzeptua gero eta erabiliagoa da hizkuntzalaritzaren arloan. Ereduak daudela jakinean, operatibitatea da hizpide. Azpigaitasunak izendatzen dira: diskurtsoaren gaitasuna; hizkuntza-gaitasuna; ekintza-gaitasuna; gaitasun soziokulturala, eta estrategia-gaitasuna. Printzipio eta deskribapenak egiten dira. Eleaniztasuna etorkizunean saihestezina izango da. Euskal Autonomia Erkidegoan euskara hezkuntzaren bitartez biziberritzeko ahalegina dago. Eleaniztasunaren eskakizuna erantsi zaio. Nagusiki eredu goiztiar partzialaren aldeko apustua egin da. Ondotik landa-lanerako tresna prestatu da: behar komunikatiboak eta hezkuntzaren bitartez lortu nahi diren helburuak hartu dira kontuan. Gaitasun komunikatiboan sakontzeko, berriz, azterketa kualitatiboari eutsi zaio. Aitortzen da gaitasun komunikatiboa hizkuntzak ezberdinduz aztertzea ez dela erreala. Estrategiak erabiltzen ikasi duen hiztunak hizkuntza guztietan aprobetxatuko baitu abildade hori. Azterketaren xedea: aipatu hiru hizkuntzetan ageri den gaitasun komunikatiboa ezagutzea. 1. Hak duen eragina ezagutu nahi da. Ingelesaren sarrera goiztiar partzialak duen eragina neurtu nahi da. DBHko 2. mailako 13-14 urteko 24 gaztek parte hartu zuten. Guztiak D ereduan. Horietarik 12k euskara dute lehen hizkuntza eta familia-hizkuntza. Besteek, gaztelania. Hirugarren hizkuntza, hots, ingelesa, adin ezberdinetan hasi ziren ikasten: 12 bost urterekin, eta beste 12 zortzi urterekin. Frogak: euskaraz eta gaztelaniaz zeukaten gaitasun komunikatiboa neurtzeko lau froga egin zituzten. Ingeleseaz zeukatena, berriz, beste hiru frogekin neurtu zen. Emaizak: oro har, maila ona erakutsi dute euskaraz eta gaztelaniaz egindako frogetan. Aldiz, ingelesezkoetan zer hobetu handia dute. Hizkuntza ezberdinetako mailen artean korrelazioa dago. Hala ere, argi dago transferrak ez direla gehiegi aprobetxatzen ingelesez. Ekintza-gaitasunari dagokionez, gehien-goak asmatu du euskaraz eta gaztelaniaz egindako ariketetan. Ez, ordea, ingelesezkoetan. Hutsegiteak hirutan sailka daitezke: koherentziarekin, kohesioarekin eta zuzentasunarekin loturikoak dira, alegia. Oro har, euskaraz eta gaztelaniaz nahiko gaitasuna erakutsi dute; ingelesez, ordea, ez. Gaitasun soziokulturala: hutsegite dezente aurkitu dira alor horretan. Euskarari dagokionez, ahozko frogetan euskalkien aldakia erabili dute nagusiki. Aldiz, idatzizkoan, batuaren aldeko apustua egin dute. Hitanoa, ikasle bakar batek erabili du. Diskurtso-gaitasunean atal batzuk beste batzuk baino hobeto eman dituzte. Horrela, testuen egitura formalari ondo antzean erantzun diote. Baina, loturagileen nahiz anaforen erabilera txikia eta kaskarra izan da. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez ondo aritu dira, baina zuzentasun zein aberastasun aldetik zer hobetu nabarmenak daude. Estrategia-gaitasun berberak erabili dituzte euskaraz eta gaztelaniaz: zerbait lortu eta konpentsatzekoak, zerbait atzeratu edo denbora irabaztekoak, eta abar. Ingeleseaz zerbait lortu eta konpentsatzekoak erabili dira bakarrik. Oro har, estrategia-gaitasunetan ez daude oso trebatuak. Lehen hizkuntzaren gaitasuna handia da hizkuntza-gaitasunean. Ingelesa ikasteko eredu goiztiarrari jarraitu dioten ikasleek emaitza kaskarragoak dituzte ingelesez gaitasun komunikatiboaren osagaietan. Ekintza-gaitasunen orduan ere hobeak agertu dira ingelesa 8 urterekin ikasten hasi zirenak. Gaitasun soziokulturalean ere 8 urterekin hasitakoak hobeak gertatu dira egokitasun estilistikoari dagokionez. Salbuespen bakarra anaforen erabilerari dagokion atalean ageri da, 5 urterekin hasitakoek gehiago

erabiltzen baitituzte. Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, testu apalagoak aurkitu dira 5 urterekin hasitakoen artean. Estrategia-gaitasunari dagokionez, euskarazko ariketetan estrategia gutxiago darabiltzate 5 urterekin hasitakoek. Ondorioen orduan, lehenik esan dezagun gaitasun komu-nikatiboaren osagai ezberdinei berariazko lekua eskaini behar zaiela ikasgelan. Gaitasun soziokulturalen lanketari aparteko garrantzia eman beharko litzaioke. Ikasgelaz kanpoko harreman sozialek presentzia beharko lukete ikasgelan. Estrategian ere trebatze-behar larria dute. Bestalde, adieraz dezagun ingelesa eskola elebidunaren eremuan intentsitate baxuan praktikatzen delarik ez dela eraginkorra. Azkenik, eredu goiztiararen hedapen masiboa berraztertu beharra garbi dagoela.

“Ikerketa-bideak konbergentzia mediatikora hurreratzeko” artikulua, kazetarien lanari etekin handiagoak ateratzeko enpresek hartutako bide berriak aztertzer dator. Multimedia aukerak, digitalizazioa dela medio, zabaltzen ari direnez, gaiak ikerketaren alorrean dauzkan premiak analizatzen saiatzen da autorea, *Goiena* Komunikazio Zerbitzuak adibidetzat harturik. Konbergentzia mediatikoaren azterketan alde kuantitatiboan jarri zuten ardurua hasiera batean, baina kualitatiboari heldu izan zaio gero eta gehiago. Autoreak, bide kualitatiboa harturik, ikertuak parte-hartzailetzat hartuko ditu gainera. Helburua da argitzea norainokoa den *Goiena* taldeko iratiaren, telebistaren, telematikaren eta prentsaren arteko konbergentzia eta zer aldaketa eraginarazi dien partaideei. Kazetari guztientzat prestatu zen galdeketa bat. Ondotik lau kazetarirekin elkarrizketa-etzabaida egin zen mahai-ingurua balitz bezala, balorazioak elkarri eginez emaitzak indartuko zirelakoan. Azkenik, kazetarien gainetik dauden arduradunengana jo eta elkarrizketa egin zitzaion banan-banan. Gogotik kendu behar ez duguna da digitalizazioaren eraginagatik gaudela gaur multimediaren eta konbergentziaren fenomenoaz hitz egiten. Fisher-ek kudeaketaren arlotik aztertzen du konbergentzia. Quinn-ek dio dikotomia batekin aurkitzen garela: enpresariari errentagarritasuna eta kazetariari informazioaren kalitatea lehentasunez interesatzen zaizkie. Bestalde, konbergentzian agerian jartzen da prentsako kazetarien eta telebistan dihardutenen arteko lehia dagoela. Zazpi urte da *Goiena* talde mediatikoa sortu zela. 46 langile inguru ari dira euskarazko lau medioetan elkarrekin lanean. Konbergentziako elementuak honako hauek dira: *Goienkaria* (2000) astekaria. *Goitb* (1990) lau erredaktorez eta zazpi teknikariz osatutako telebista. *Arrasate Irratia* (1992) bi erredaktore eta teknikari batekin ari dena. Eta *Goiena.net* (2003) bi erredaktoreekin ari den leiho telematikoa. Autoreak *Goiena* informazio-egituraren aldaketak direla medio, Hego Karolinako Ifra Newsplexekin dituen berdintasunak azpimarratzen dizkigu. Hasteko Edukien Zuzendariaren figura ageri baita bietan. *Goiena* astekariko zuzendariak hartu zuen egitura berriaren gidaritzza. Konstatatzen da telebista dela hedabiderik konplexuena konbergentziaren bidean. Telebistan bi ardurua baitaude parez pare, hots, “albistegietako burua” eta “albistegietako editorea”. Zuzendaria eta ikus-entzunezko arduradunarekin batera, lau hedabideetako buruak elkartzen dira ostiralero. Batzarrean. Oraingoz ez daukate erredakzio bakarrik. Litekeena da 2008an lortzea. Behaketa otsailaren 2tik 9ra bitartean *Goienako* kazetarien lanari jarraituz egin zen. Aldi berean bileren behaketa egin zen. Edukien Zuzendaritzako Bilera kontsidera liteke informazioaren arloan gertatzen ari diren aldaketen islarik garbiena. Bestalde, *Goienkaria* prentsak ostiralero kaleratzen duen astekariaren zuzendariak erredaktoreekin egiten duen

bilera ere eredutzat hartuko da. Behin bileren berri izan ondoren, kazetarien lanaren jarraipena egingo da. Ondorioetara igaroaz, *Goienako* kazetaria multitarearen eta multimediaren artean dagoela agertzen da. 30 urtez azpikoa dela batez beste eta emakumezkoa nagusi dela. Zuzendaritza hartzen dituzten erabakiak integratzeko prozesuan ondoren zuzenak dituzte erredaktoreen lanean. *Goienako* lau hedabideen arteko bateraketa ezinbesteko urratsa ageri da. Integrazio mediaticoak Quinn-en dikotomia dakar epe laburrera: gastuen murrizketari begiratzen diona ala informazio eta langileen lan-baldintza egokienak bilatzen dituen, alegia.

“Euskara erabiltzearen erraztasunaren/zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak” artikuluan, hori guztia nolakoa den eta zer-nolako ondorioak ukan ditzakeen erakutsi nahi da. Euskara erabiltzeko orduan izan litezkeen erraztasunak eta zailtasunak emozioekin lotzen dira. Eta hori interpretatzeko ikuspegi psikosozial psikologista, pertsona mailan oinarritua eta alde unibertsalak dituen hautatzen da. Ikuspegi psikosozial psikologista, gizabanako bakoitzaren baitan gertatzen direnak modu autonomoagoan edo independenteagoan aztertzen dituen, biologista gisa definitzen da. Pertsona aztertzeko beste hainbat egiten da: ikuspegi psikosozial psikologistara mugatzen baita. Pertsonaren alde unibertsalak oro har kontsideratzen dira. Badakigu jada, neurri batean behintzat, euskara asko/gutxi erabilia dela aldagai batzuen arabera. Erdararen ezagutza maila heinekoa edo handiagoa ez bada, euskararen erabilera erori egiten da. Bizitzako alor guztietan erabilia izan dadin ezinbestekoa da euskararen ezagutza anizkoitza ukaitea. Euskararen presentzia-dentsitatea, pertsona bakoitzarekin zuzenean lotzen den sarean ageri da. Pertsona bakoitzarekin zeharka lotzen diren guneetan beharrezkoak izan behar dira, ez borondatezkoak alegia. Euskararen erabilera erraztu dezakete ezaugarri psikosozial batzuek: euskararekiko identitateak; motibazioak; jarrerak; emozio positiboak sortzeak. Hala ere, badira ia ezagutzen ez diren ezaugarriak: pertsonaren nortasun mota dependentea/independentea izatea; pertsonaren prototipikotasuna neurri handikoa/txikikoa izatea; erabiltzen dituen prozesu psikosozial nagusiak zeintzuk diren portaerak azaltzean; liberean gradu ezberdinen baldintzapena; harreman-gune bakoitzean agertzen den beharrezkotasuna/erredundantzia; eta azkenik, guneak prestigio handikoak/txikikoak izatek datorrena. Emozioei dagokienez, prozesu psikosozial bereziak direla uste da. Zer diren jakiteko orduan definizioa, funtzioak, motak, eta ondorioak zehaztu behar dira. Emozioa pertsonak beti berarekin duen alde psikosoziala da. Osagai gisa izaera biologikoa, psikologikoa, psikosoziala, adierazkorra eta portaerazkoa kontuan hartu bera dira. Euskara erabiltzeak zorientasuna, erosotasuna eta lasaitasuna emango dituen neurrian emozioek errazten dutela euskara erabiltzea ondorioztatu behar da; eta alderantziz denean emozioek zailduko dutela euskara erabiltzea berez da. Emozioen funtzio nagusia da pertsonaren helburu nagusia den zorientasuna lortzeko lanabes izatea. Azpigelburu gisa funtzionatzen duten helburu bereziak ere badira. Emozioek detektatzaile-lana egiten dute, lehenik, alde/kontra daudenak ebaluatuz. Bigarrenik, eragiteko orduan alde/kontra izanez. Gerta daiteke, berez, emozio negatibo direnak modu positiboan funtzionatzen ikustea zorientasunaren helburua lortzeko orduan eragin dezaketelako. Emozio mota ezberdinak bereizi behar dira: unibertsalak/periferikoak; positiboak/negatiboak adierazkortasunaren dimentsioan; positiboak/negatiboak eraginkortasunaren dimentsioan; emozioak/gogo-aldarteak, eta emozioak/sentimen-

duak. Ondorioak aipatzean berehala jabetzen gara funtzioen arabekoak direla: sentimendu positiboak/negatiboak; gogo-aldarte positiboak/negatiboak; eragile aktiboak lege orokorrean ari direnean; eragile aktiboak lege bereziari jarraitzen diotenean; eta osasun ona/txarra dakartenean. Ondorio patologikoetan bi motatakoak azpimarratu behar dira: medikuntzarekin lotura dutenak; psikologia eta psikiatriarekin lotzen direnak. Euskararen erabilerari jarraitzen ahal diotenen eritasunak psikologia eta psikiatriaren alorrekoak lirarteke. Emozioen kokapena ikuspegi psikosozialean kontsideratzen bada, hiru munduren arteko loturak aurkituko ditugu: paradigma kognitiboan aipatuak; paradigma emozionalak nabarmenduak; eta inteligentzia emozionalaren paradigmatik dakartzenak. Zientziagintza modernoan kognizioarekin sartzen dira gai hauek: hautematea, egozpena, ezagutza eskematikoa/landua, memoria, eta abar. Kognizioak gainera beste guztia lotzen du: motibazioa eta emozioa; portaerak; eta nortasunaren bilakaerei loturikoak. Hala ere, horrek guztiak muga jakinak ditu: ezagutzak eskematizatzeko joera; errakuntzak eta soslaiak egitera mugatzea. Zientziagintza postmodernoan, emozioak oinarritzotzat hartzen dira, zeren anitzetan ezagutzak emozioen bidez lantzen baitira. Motibazioak ere beste modu batean interpretatzen dira emozioetatik abiatzean. Portaerak aztertzeke orduan ere garrantzia daukate. Gaur egun, aipatu bi zientziagintza horiek elkarrekin lotzeko saiakerak agertu dira. Inteligentzia emozionala izenez hedatzen ari den teoria dugu horren lekuko. Interesgarria da jakitea ea zer-nolako gaiak lantzeko erabiltzen ari den teoria hori: lan-munduarekin; pertsonen zorientasuna lortuz lanean efikazago izatearekin. Produktibitatearen dimentsioa aztertzean bi alde bereizi behar dira: pertsonen ongi sentitzea; eta enpresaren lorpenak aurrekoarekin lotzea. Euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasuna ulertzeko balioko teoria izan daiteke. Dauden zientzia-jokabideetan barna ibiliz beharrezkoa da zer den zertarako baliagarri diskriminatzen jakitea; baita gai bakoitza lantzean eta erabakiak hartzean zer aukeratu behar den arrazoitzea ere. Horrela, batzuetan egokiagoa izango da helburuak lortzearekin lotzen diren motibazioak gehiago lantzea, beste batzuetan helburuak lortzerakoan ondorio emozionalak gehiago lantzea, eta abar. Ondorio orokorretara igaroaz, ikuspegi psikosozialaren garrantzia azpimarratuz abiatzen da. Mota ezberdinetako eredu teorikoak behar dira hala makroak nola mikroak. Erabili behar diren lege unibertsalak: ekonomiazko dimentsioa; auto-onuragarriaren legea; eta auto-zorientasunaren legea. Erabili behar ditugu, orobat, joera bereziak. Dakigun neurrian horietarik dira: euskararekiko atxikimendua eta identitatea; eta euskararekiko militantzia. Identitateari buruzko galdera bat dago formulatzeko: noraino da maneia? Euskara ahalik eta modu errazenean erabiltzeko tipologia moduko bat eraiki beharko litzateke: euskara ezagutza motaren arabera; adinaren arabera; komunikazio motaren arabera; aukeraren arabera; gune funtzionalaren arabera; eta ikuspegi arabera. Erraztasun/zailtasun ondorioei so, mota ezberdinetakoak bereizi beharko lirarteke: ohiko ondorio arruntak eta normalak; ezohiko ondorio arruntak eta normalak; ondorio bereziak; eta aldi berean ondorio arruntak eta bereziak edo ezohikoak kontuan hartzea eskatzen duten egoerak. Azken hausnarketara igaroaz, esaten da ikuspegi psikosozial psikologista gero eta beharrezkoagoa ikusten dela. Euskara erabiltzeko helburua gauzatzeko orduan, mota guztietako ezaugarriak gurutzatu beharra dagoela. Emozioak azpimarratzea ere behar bat bezala ageri da soziolinguistika eguneratzeko orduan. Emozioak

guztiaren erdigunetzat hartu behar dira. Oraindik anitz dago jakiteko eta egiteko. Lorpen bat eskas ikusten da: adituen inplikazio handiagoa, alegia.

“Emakumezko autobus-gidariak EAEn” artikulua balizko gaitasun-transferentziak eta portaera berritzaileak aztertzen ditu. Egile batzuek antzeman dute zenbait emakumezko langilek hainbat portaera berritzaile abian jartzen dituztela, eta horren ondorioz, generoaren rolei buruzko ikuspegi berri bat agertzen dela, lan-jardueran hobekuntza bat eraginez. Horrela, gizezkoek tradizionalki bete dituzten hainbat rol gainditzea lortuko dute emakumezkoek. Scheller-ek autobus-gidarien kasuan hiru betebeharrak nagusi definitzen ditu: gidaritza; zerbitzu bat prestatzea; eta kontrolarekin zerikusia duten ekimenak abiatzea. Beste zenbait autorek diote ezen gidaritzarekin batera premia eta urgentzia ezberdinak aurrera eramane behar direla. Egoera horiek gidaria gogaitzea eta bere arreta gutxitzea ekar dezakete. Eta horrek segurtasun- eta puntualtasun-bektoreen artean kontraste bat piztuko luke. Bestalde, tentsioak askatzeko orduan, gehienbat, arautegiari ez erreparatu, gidariek hainbat baliabide erabiltzen dituztela erakusten digute ikerketek. Galdera da, bada, zein izango litzatekeen autobus-gidariaren rola. Parisko RATPko langileen rolen inguruan egindako ikerketa batek lau funtzio antzeman zituen: segurtasuna, gidatzea, bezeroei emandako harrera, eta puntualtasuna. Berdintasunaren zama pean izango balira ageri dira, ordelegi eta ibilbidetaren menpeko, alegia. Gazteenek eta emakumezko gidariek lanbidean eta bizimodu irregularrean eraldaketa nahia ageri dute. Zeintzuk dira, beraz, autobus-gidari lanean hasteko motibazio nagusiak? Scheller-en aburuz, jendearekin harremanetan egotea litzateke. Horrela eraginkortasunean eta errentagarritasunean oinarritutako estrategia komertzialekin bat egingo luke. Lazykoff-ek dio etorkizuneko segurtasuna eta diru-sarrerak bermatzea liratekeela. 2001ean guztira 260 (% 5,59) emakumezko lan egin zuen autobus-gidari EAEn. Ikerketaren helburuak dira deskribapen soziodemografiko eta soziolaborala eskaintzea, eta motibazio, irudikapen eta identitatearekin zerikusia duten faktoreak nabarmentzea. Lau hipotesi jartzen dira jokoan. Metodoari dagokionez, Bilboko eta Donostiako bi autobus-konpainia publikoetako 29 emakumezko gidarik parte hartu dute. 25 eta 60 urte bitartean daude. Batez besteko adina 37,14 urtekoa da. Erabilitako tresna elkarrizketa erdi-egituratua izan zen. Erabilitako prozedura: emakumezko autobus-gidariei elkarrizketa egin aitzin, Bilbo, Gasteiz eta Donostiako konpainia publikoen arduradunekin elkarrizketa egin zen. Azkenean, konpainia horietako bik bakarrik onartu zuten ikerketan parte hartzea. Elkarrizketa guztiak gidarien anonimatu bermatuz egin ziren. Horretarako prestatutako gela batean borondatez apuntatutako 29 emakumezko autobus-gidari elkarrizketatu ziren. Eraitza nagusiak aipatzean, lehena da emakumezko autobus-gidarien kontratuen kopurua arlo horretako 2001eko enplegu-tasaren gainera dagoela. Batez beste 6 urte zeramatzen autobus-gidari lanetan, eta 4 urte eta 10 hilabetez zeuden orduan ari ziren konpainian. Bestalde, % 51,7k bere familietan (aita edo senarra) txoferlanetan jardundako senitartekoak dauzka. % 42,9ren kasuan beren amak etxetik kanpo lan egindakoak dira. Aldiz, % 25,9k bakarrik onartzen du diru-soldata edo egonkortasun profesionala izan dituela gidari lanean sartzeko motibotzat. % 74,15ek onartzen du betidanik erakargarri izan zaiela autobus-gidariaren lanbidea. % 37,8k hasieran beldurtzen zutena erantzukizunarekin lotutako faktoreak zirela aitortzen du. EAEko emakumezko autobus-gidarien artean % 47,6ko



garrantzia ematen zaio puntualtasunari. Segurtasunari, aldiz, % 16,6koa. % 54k publikoarengana bideratutako identitate profesional bat erakusten du. Emakumezkoa edo gizonezkoa izatea lanbide honetan berdin ote den galderari % 51k baietz, eta % 29k ezetz erantzun diote. Ondorio orokor batean azpimarratzekoak lirateke: emakumezko autobus-gidarien enplegu-tasa gora doala. Lehen hipotesia partzialki bete dela, senitarteko batzuk autobus-gidari lanetan agertzean. Bigarrenari dagokionez, lan publiko eta soziala egitea dute motibazio nagusi. Lanbide berria aldaketa bailitzan bizi izan dute, hots, euren estatusetan gorakada gisara. Hirugarrenari so, rol profesionala, gehienbat, puntualtasunari garrantzia emanaz irudikatzen dute. Laugarrenari dagokionez, feminitatearen ezaugarrien presentziak bat egingo luke enpresen politika berriarekin.

“Uruguaiako etorkinak eta aplikagarri zaien errealtate arauemailea: zenbait ohar kritiko” artikulua, espainiar auzitegiek eta botere politikoez azken urteetan Uruguaiako etorkinei aplikatu beharreko zuzenbidearekin dauzkaten duda-mudei argi pixka egitera dator. 1870. urtean Espainiako Erreinuak eta Uruguaiako Ekialdeko Errepublikak Ezagutze, Bake eta Adiskidetasun Tratatuak sinatu zuten. Nazio faboratuen kondizioa gauzatzuz elkarrekiko zenbait eskubideren ezagutza zuen xedetzat. Denbora luzean Uruguaira joandako espainiar etorkinei modu zabalean praktikara eramatea onartu zitzairen. Baina, alderantzizko egoera sortu denean, hots, Uruguaiako etorkinak Espainiartzen hasi direnean, hitzarmen hori ez aplikatzeko jarrerak erantzun sendoa sortu du, hala arlo politikoan nola judizialean. Auzitegiek finkatu duten jurisprudenzia-errealitateak gatazkaren konplexutasuna plazaratu du. Abiapuntuan Auzitegi Gorenaren 2002ko urriaren 10eko sententzia bat daukagu. Horrela zioen, 1870eko Tratatuaren izenpetutakoak lana, erresidentzia... gaitan ondorioak izan zitzaizkela baina inola ere ez Espainian lan egiteko eskubidearen titulartasunean. Horren aurrean, 2004. urtean autonomia-erkidegoetako Auzitegi Nagusiak 1870eko Tratatuak ezin zela modu isolatu batean kontuan hartu argudiatuz, Espainiako Auzitegi Gorenak bere sententzian aurkeztutako egoera bestelakoa delako ondorioa heldu ziren. 2005. eta 2006. urteetan gaitan iraulketa berri bat ezagutu zen: zenbait autonomia-erkidegotako Auzitegi Nagusiek Auzitegi Gorenaren jarrera bere egin baitzuten. Bestalde, zenbait talde parlamentario, pixkanaka, proposamen ez-legegile bati bide ematera ailegatu dira. Bertan, Espainiako Gobernuari eskatzen zaio Uruguaiako Ekialdeko Errepublikako Gobernuarekin Goi Mailako Komisioan bilduta arautegi bat adostera heltzea. 2006ko apirilean antolatu zen bilera hori. 2006ko irailaren 26ko datarekin Auzitegi Gorenak Administrazioarekiko Auzien Bosgarren Salan sententzia eman zuen eta ebatzi zuen 1870eko Tratatuak ez dirauela indarrean. Gatazka hau, ordea, ez da amaitu, oraindik 2007. urtean arlo politikoan garatu diren hainbat ekimenek aditzera ematen dutenez. Aurrera begira, bada, ezinbestekoa dirudi ikuspegi juridikotik auzitegi ezberdinen lana aztertzeak eta, batez ere, Nazioarteko Zuzenbideak honetan guztian zer esateko duen azaltzeak. Artikuluaren autorea, horrela, egitateen gaineko azterketa juridikoa egiten saiatzen da. Hasteko, behe-mailako auzitegien sententzien ingurua argitzeko Nazioarteko Zuzenbidetik zenbait ohar. Jakinean autonomia-erkidegoetan ebatzi diren kasuetan emaitzak erabat kontrakoak izan direla, zein da 1969ko maiatzaren 23ko Vienako Hitzarmenean dagoen mezua? Lehenik eta behin, 54. artikulua dioenera jo beharko da. Bertan tratatuen amaierari dagozkionak kontsideratzen dira. Hori gure kasua ez dela ikusita, 59.

artikuluak jasotzen dituen isilbidezko amaiera suposturen batean gauden azertu behar da. Azken horrek ez dirudi baliagarria. Orduan, Vienako Hitzarmenaren 30. artikulua ezartzea ezinezko egiten da horretarako beharrezko den aurreposturik ez dagoelako. Ezezkoa ematean, xedapen horrek jasotzen dituen arauen aplikazioaren aurrean aurkituko ginateke. Baina xedapen ezberdinen terminoak interpretatzea eskatuko litzaziguke. Horretara iritsi aurretik, 30. artikuluko bigarren paragrafoa: beste behar bati erantzuteko agintzen du, hots, tratatuen arteko harreman-klausulen existentzia aztertzeko. Aztertzen den kasuan 1992ko Tratatu Orokorren 18. artikulutik dator duda. Baina, kasu honetan aldean borondatearen aurrean aurkitzen garela eta ez tratatuetatik kanpo ekartzen dugun arau baten aurrean ondorioztatu behar da. Bestalde Vienako Hitzarmenak bere 31.2 artikuluan interpretazioari buruz jasotakotik ere ez da erraza jakitea zein motatako klausulen aurrean egongo ginatekeen. Lehentasun-klausula baten aurrean egon gintezke. Dena dela 30.2 artikulutik kanpo egon gintezke. Hori dela eta, konprenigarri gerta daiteke 30.3 artikuluari egiten dioten erreferentzia zuzena. Are gehiago, Vienako Hitzarmenaren 30.3 artikuluko aplikazioa eta tratatuak bateragarriak diren ala ez zehaztea, ez da lan erraza. Lan horretan hiru irizpide kontuan hartu beharrekoak baitira. Beraz, egin beharreko interpretazio-lanak markatuko du Uruguaiako etorkinei aplikagarri zaien araudiaren errealitatea zein den. Horren aurrean, berriz ere garbi gelditzen da arauak ez dutela bizitza propiorik. Aztertzea da ere espainiar ordenamenduaren barne-legedian oinarritutako interpretazio-proposamen bat. Lehenik eta behin, 1961eko Nota Elkartrukeari eutsi beharko genioke. Zentzu horretan komeni da Vienako Hitzarmenaren 13. artikulua jasotzen duenari begiratzea. Ez dirudi zirrikitu handirik uzten dionik Uruguaiako herritar bati bisaturik gabe Espainian sartzeko unean. Edonola ere, ondorio honek ez luke interpretazio-lana agortuko; izan ere, 1992ko Tratatu Orokorren 1870eko Tratatuan dituen eraginak aztertzea ezinbestekoa suertatzen baita. Adi berean, *“facilidades”* terminoaren interpretazioa ez bide da batere pazifikoa. 4/2000 Lege Organikoa bera ere ez dugu interpretatzeko orduan errazagoa. Beste elementu bat izan daiteke Latinoamerikako beste zenbait estaturekin sinatutako lanabesetan jasotako antzeko xedapenen konparaketa. 1992ko urriaren 29an Kolonbiarekin sinatutakoa edo Ekuadorrekin 1995eko abuztuaren 25eko Protokoloa. Adibide horiek ikusita beharrezko egiten da Uruguaiako herritarrekin egiten den diferentzia norainokoa den aztertzea. Dena dela, Uruguaiako herritarrek Espainian sartzeko arazorik ez lukete gerora begira beren egonaldiaren luzapena 1992ko Tratatu Orokorrean oinarrituz. Aipatzekoa da ere Gobernu eta Parlamentuen testuinguruan emandako pausoen gaineko zenbait ohar. 1992ko Tratatu Orokorren jasotzen duen Goi Mailako Komisioaren bileran Auzitegi Gorenaren sententziaren zain geratzeko hartutako erabakia seinlatu behar da. Horri oina jarri zion Espainiako Kongresuan aho-batez onarturiko proposamen ez-legegilea interpretatzeko subjektu eskuduna Estatua bera bakarrik dela adierazi izanak ere badu garrantzirik. Baina, besterik da bi Estatuak aldi berean emaitza berera iritsi beharra. Horrelakorik gertatzen ez denez, nazioarteko gatazka baten aurrean egon gaitezkeela pentsatzea ez da zilegi. Izan ere, nazioarteko jurisprudentziak eskatzen du estatuak jarrera kontrajarriak izatea kanpora begira. Azkenik, Auzitegi Gorenaren sententziari zenbait aipamen kritikoa egiten zaizkio. 2006. urteko irailaren 26an espainiar jurisprudentziaren doktrina behin-betiko finkatzean 1870. urteko Tratatuaren indarreangotasunaren kontra azalduko da. Lehenengo aipamena honi loturik doa:

2002ko urriaren 10eko sententziaren bitartez, 1870eko Tratatuaren antzekoak ziren beste estatuetako (bereziki Txile eta Peru) tratatuetako terminoetatik ez zen batere aldentzen. Oraingoan, aldiz, Auzitegi Gorenak onartzen du, bere unean ez zuela kontuan hartu Uruguaiako Ekialdeko Errepublikak eta Espainiako Erreinuak sinatutako 1992ko Tratatu Orokorrek bestearen gain zuen eragina. Aldatu aurrez hamar urteko biziraupena izan zuen hala ere. Bestalde, Auzitegi Gorenak bere sententzian aplikagarria den zuzenbideari ez dio aipamenik egiten. Inolako erreferentzia juridikorik ez egiteagatik kritiko azaltzea ezinbestekoa da. Tratatu bi horietan termino berdintsuak ez erabiltzeak ez dakar automatikoki inolako bateraezintasunik. Zaila egiten da ulertzea, orobat, ezen aipatu tratatuaren kasuan *“facilidades”* eta *“en pie de igualdad”* terminoak eskubideen egikaritzara zuzenduta daudela, ez titulartasunera. Ondorioak ateratzeko orduan hauxe nabarmenduko dugu: 2007. urtean gatazka hau oraindik ez dagoela amaituta. 2007ko irailaren 18an Uruguaiako Ordezkarien Kamerak onartutako azken ekimenak badirudi nazioarteko gatazkara gerturatzen gaituela.

